

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

21/2019 Foru Agindua, uztailaren 31koa, baimentzen duena Eva María Díaz Picaza andrearen behin-behineko izendapena Laudioko Udaleko idazkaritza lanposturako

Laudioko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra duela, oporraldian Oscar Fernandez de la Roza diruzaina ordeztzeko.

Horregatik, proposatzen du Eva María Díaz Picaza udal horretako funtzionarioaren behin-behineko izendapena.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko eskumen eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eva Maria Díaz Picaza behin-behinean izendatzea Laudioko Udaleko diruzaintza lanpostuari dagozkion eginkizunetan jardun dezan titularra ez dagoen bitartean, hau da, 2019ko abuztuaren 19tik 23ra arte, biak barne, eta 2019ko irailaren 2tik 13ra arte, biak barne.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako aldi bako bako ez du indarririk.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Laudioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 31

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Oreekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ